

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foru Gobernuak 4,19 milioi euro emango ditu Sakana eta Larraun-Leitzarango azpiegituretarako

Lakuntza, Arruazu, Irurtzun, Leitza, Lekunberri, Imotz, Uharte Arakil eta Hiriberri (Arakil) herrietan egingo diren obrak eta Sakanako Mankomunitateak sustatutako beste batzuk egiteko izango da zenbatekoa. Guztira, 6,38 milioi euroko kostua dute.

Martes, 22 de octubre de 2013

Nafarroako Gobernuak 4,19 milioi emango ditu 2012-2014 denboraldian Foru Komunitateko iparraldeko zortzi herritako azpiegituren obretarako, José Javier Esparza Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak gaur goizean, Irurtzunen, inguruko (Sakana, Leitzarano, Urumea eta Araxes) udal-ordezkariekin egindako bileran esan duenez.

Gaur egun abian dira [jarduerak](#) (edo aurten bukatu dituzte), eta 6,38 milioi euroko kostua izan dute. Obrak Lakuntza, Arruazu, Irurtzun, Leitza, Lekunberri, Imotz, Uharte Arakil eta Hiriberri (Arakil) herrietan egiteko eta Sakanako Mankomunitateak sustatutako beste batzuk dira, batik bat hornidura-sareak berritzeko, kaleak zolatzeko, argiteria publikoa berritzeko, udal-instalazioak egokitzeko (kontzejuetxeak eta hilerriak), eta uraren goi-horniduretan obrak burutzeko (hoditeria, ura edateko ur bihurtzeko bi instalazio etab.).

2013an, Foru Gobernuak 2,69 milioi euro eman zituen jarduera horietarako, hau da, Nafarroa osora bideraturiko zenbateko osoaren % 12,87. Inguru horretan 25 udalerrri daude, guztira 29.540 biztanle, Foru Komunitate osoaren % 4,58. Biztanle bakoitzeko, ekarpena 91,01 eurokoa da; Nafarroa osoko biztanleko ekarpena, aldiz, 32,40 eurokoa. 2012an, obrak burutzeko 1,32 milioi euro bideratu ziren eta, aurreikusi denez, 2014ko ekitaldian 0,18 milioi euro jasoko dira.